

Elgoibar - 1200. zenb.
XXX. urtea - 2023-06-16



TOKIKOM

BARREN

Jarrai dezala ikuskitunak





Tomasa Zulaika Arriola

2023ko ekainaren 10ean hil zen, 97 urte zituela.

*Larraskandan, Almenaran, familia giroan
Amama Tomasa pozik zan.
Orain, aittitta Eugeniorekin batera,
izarren artean dabil dantzan
gure bideak argia izaten jarrai dezan.
Eskerrik asko, amama; egunen batean
berriz ere bildu gaitazan.*

Etxeoak



Javi Arnedo Merino

Ekainaren 10ean hil zen, 64 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

*Kanpoan eguzkia sutan,
hotza gure barrenean,
zenbat min, zenbat amorru
bizitzak zu eroatean.
Izan zaitugu eredu
zentzurik zabalenean,
eskuzabal, maitekorra,
beti gure aldamenean.*

*Eta jakin badakigu
orain eta aurrerantzean
aurkituko zaitugula
Lakartxela tontorrean,
Sakonetako uretan,
perretxiko usainean,
biloben begiradan ta
gure bihotz barrenean.*

Etxeoak

Javi Arnedo Merino

Ekainaren 10ean hil zen, 64 urte zituela.

*Lagunok gauzkazu zoli
bizipozaren egarri,
ez baitakigu nola bete guk
hutsunetzar hori*

*Malkotan bihotz ta begi
aurrera begira jarri,
baina goibeltzen gaitu zeharo
zure faltak, Jabi!*



Erre Arte Kuadrilla

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Ane Kortaberria

Ikasle ekintzailea

Produktibitatea bai, baina alferkeriari ere bai



***"Produktiboak izan behar
garela esan digute,
eta hala ez bada,
zerbait gaizki egiten
ari garela ematen du"***

A spaldian inoiz baino denbora "libre" gehiago eduki dut eta askotan nire buruari errua bota diot, denbora aprobeztatzen ez nagoela pentsatuz. Beti produktiboak izan behar dugula esan digute, eta horrela ez bada, zerbait gaizki egiten ari garela ematen du. Denbora libre gutxi dugunean kexatu egiten gara, guretzat astirik ez dugula esanez, eta alderantziz denean ere kexatzen gara, denbora hutsuneak nola-hala bete nahi izaten ditugulako. Baina noiz bukatuko da bukle hau?

Ez naiz ezkutatuko. Onartu beharra dut beti izan naizela plan berri bat agertzen den momentuan apuntatzen den horietakoa. Denbora libreari etekina ateratzen ahalegintzen naiz beti, eta egia esan, izaera honek abantaila asko eman dizkit, esperientzia desberdin asko bizitzeko aukera eman didalako. Aitzitik, honek ez du esan nahi ezer ez egitea gustuko ez dudunik. Hasieran, geldi egotea eta alferra izatea zaila egiten zitzaidan arren (eta badakit askorentzat hau arraroa izango dela), orain, disfrutatu egiten dut.

Gainera, askotan, gizaki "perfektutzat" hartzen ditugu eguneko ordu guztiak azken segundura arte beteta dituztenak, egindako dena ondo egiten dutenak eta kanpotik ikusita beti ondo daudela ematen dutenak. Baina hori ez da erreala izaten, besterik gabe, ezinezkoa delako. Baina tira, gai honekin batera gure arteko konparaketez, leia eta beste hainbeste konturi buruz ere hitz egin dezakegunez, alde batera lagako dut hori.

Laburbilduz, zuen denborarekin egiten duzuenaz hausnartzeko gonbita egiten dizuet edo besterik gabe, sofan lasai-lasai egonda BARREN hau irakurtzen jarraitzeko, noizean behin alferkeria pixka bat ondo dagoelako!

BARENek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Eskerrik asko

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den larunbatean, ekainaren 10ean, ospatu zen Ikastola-Eguna antolatzen lagundu zuten guztiei: babesleei, gurasoei, ikasleei, bai eta irakasleei ere. Goizean goiz hasi zen eguna, eta parte-hartzaile guztiek elkarlanean bideratutako ekimenari esker, giro ederrean igaro zen. Eskerrik beroenak parte hartu zuten guztiei!

Laguntzaileak: Agurtzane ileapaindegia, Ainhoa fisioterapia, Alire estetika, Alkorta bakailoak, Amagoia, Ametsa taberna, Ana, Mosacua, Arauri, Aranburu bitxi-denda, Arauri, Armueta harategia, Astigarraga kirol denda, Azkue argazki denda, Bankoa Abanca, Barrenetxea, Etxeberria farmazia, Barrutia Optika, Belaustegi jatetxea, Bernardo Ecenarro, Bizkor bizikletak, Caixabank, Castrillejo estankoa, CD Elgoibar, Deuko Izarra, Doña Mercedes, Ecenarro lentzeria, Eizagirre okindegia, Elgoibarko Udala, Elgoibart, Eroski, Fadek ile-apaindegia, Farmazabal, G&M jantzi denda, Garate jantzi denda, Garitonandia farmazia, Gautxo jatetxea, Gertu fisioterapia, Gobike, Idama ile-apaindegia, Ikus optika, IMH, Iriondo kirolak, Irune Arriola farmazia, Iturri taberna, Izaro Etxegibel, Jai Alai taberna, Jasone Osoro, Jone Beitia hortz klinika, Jose Antonio ile-apaindegia, Kaia taberna, Kala loradenda, Karkizano, Kemen belardenda, Kima estetika, Kukua Kultura Saila, Kutxabank, Laboral Kutxa, Lanbroa taberna, Lerun jatetxea, Maala taberna, Magi bitxiak, Mapfre, Mekanosa, MTE, Noa ile-apaindegia, Oin Berri, Otzarreta harategia, Pelegrin Pepe estankoa, Pilon, Pitxintxu, Rotonda okindegia, Rural Kutxa, Salento, Sanlo, Sara jantzidenda, Sare Fisioterapia, Sigma jatetxea, Surya belardenda, Txillarre, Udal liburutegia, Uzuri optika, Viento Sur, Xarlem kreazioak, Zahatzu harategia, Zazpi informatika, Ziarda harategia, Zu gehi ni.

Ikastola Eguneko Batzordea

Enpatia

Ez dira gauza bera sinpatia eta enpatia.

Grekoen hizkuntzak, latinak ere bai noski, funtsezko kontzeptu asko utzi dizkigu mendebaldeko zibilizazioan. Zientziaren arlo guztietan ditugun hitz, aurrizki (A-, sin-, geo, filo-, teo-, termo-, hidro-, kilo-, krono-, lito-, poli-, neo-, mega-, mikro-, morfo-) zein atzizkiek (-logia, -algia, -sofia, -krazia, -grafia, -grama, -metro, -fago) erakusten dutenez, terminologia bateratua dugu arlo gehienetan. Horietako batzuk aurrizki zein atzizki gisa ager daitezke: fagozitu eta antropofagoa, geometria eta metronomoa, termometroa eta geotermia, politika eta megapolis, morfologia eta amorfoa, geologia, filologia...

Sarreratxo honekin adierazi nahi dut gizakiaren arlo gehienak aztertu eta landuta daudela aspalditik. Teknologia izan da aldaketarik handienak lortu dituen; egiteko modua edo teknika, horixe da teknologia. Aurrerapen horiek lexikalizatzeko orduan, azken mendeotan teknologian nagusi diren herrialdeetako hizkuntzek (ingeleza, japoniera, txinera...) utzi eta utziko dute arrastoa. Funtsezko kontzeptuak aspaldiko lexema eta morfemen bidez adierazten ditugu, oro har.

Pathos (pasión gaztelaraz) da gaur aztertu eta komentatuko duguna. Adibidez, sinpatia hitzak norbaitekin sentimentua (sufrimendua nahiz poza) konpartitzea esan nahi du. Ideia, ikuspegi, asmo eta gustuak partekatzen dituztenak dira, berez, sinpatikoak. Pertsona sinpatikoak jarrera irekia izan ohi du, ez da nahitaezkoa irribarretsua izatea. Bestearekin bere pozak zein kezak partekatzeke prest egoten da. Gaztelaniaz compasión hitza litzateke sinpatiaren itzulpenik zehatzena, nahiz eta kasu horretan gaztelaniazko hitzak konnotazio tristea, penarena, izan bakarrik.

Idea honekin lotuta, umetako akordua datorkit bat-batean. Herriko plazan solasean eta, bide batez, jostintzan ziharduten emakume batzuek eta haien seme-alaba txikiak inguruan jolasean. Bada tartean mutiko bihurri bat, beste umeei zirika diharduena. -Neurea balitz emongo neukixo belarri ondoko bat- esan du ama batek. -Baita neuk be zurea balitz- erantzun dio bihurriaren amak. Maitasuna tartekatu da.

Beste kontu bat da antipatikoarena. Pertsona itxia, partekatu nahi ez duena, nolabaiteko arbuio edo haserrea duena. Badira apatikoak ere. Ez iso, ez arre. Ez alde, ez kontra. Etsaiak/ adiskideak, gureak/ besteak, onak/gaiztoak, argia/iluna, hemengoak/ kanpotarrak, Ormuz/ahriman (Zoroastro). Binomio simple hauen jatorria aspaldikoa da. Manikeismoa dute oinarria, hau da, ezberdintasunak sinplikatze joera. Egia osoa oso konplexua da eta erosoago gertatzen zaigu binomio errazean, koordenatu sinpleetan, mugitzea.

Noan harira. Sinpatikoak dira asmo, gustu, ideia berdintsuak dituztenak. Baina, zer dakigu guretzat antipatiko diren horiek izan duten familia-giroaz, heziketaz, bizitzako hainbat kolpe eta atsekabez? Gertaerak dira gorrotagarri, baina pertsona guztiek merezi dute harrera ulerkorra; besterik ez bada, errukia. Hemen sartzen da enpatia.

Zoritxarrez, gu ordezkatzeko gaituzten politikoez ere binomio simple eta triste horretan oinarritzen dituzte euren diskurtsoak, gero eta gehiago. Gorrotoa dute jokozelai errentagarria, azakeria edo hipokresia tarteko. Batez ere euren ogibidea ziurtatze aldera edozertarako prest dauden "politofago ganberroek". Errukarriak dira eta are errukarriago haien amua irensten duten herritar xehe gaixoak.

A. Ugarteburu

txosten geologikoak agerian utzi duela zein egoera tamalgarran dagoen Zaldibarko zaborteziaren orubea.

Txostenak hauxe dio: zaborteziaren ez dago egonkor (hura estaltzeko lanak egin ostean ere); ingurumen arrisku handiak ditu oraindik: ez da beharrezko mantentze lanik egin; ura kutsatzeko arriskua dago (ez delako ezarri euri urak iragazteko harresirik); hondakinen gainean jarri duten 30 zentimetroko lur geruzak gaitasun mugatua du euri urei eusteko; arrisku handia dago karbono dioxidoa disolbatzeko eta metano kantitate handiagoko askatzeko (zaborteziaren hezetasun handia dagoelako) eta suteak sortzeko arrisku handia dago.

Zaborteziaren egoerari aurre egiteko, txostenak behin-behineko irtenbide bat aholkatu du, lehenbailehen martxan jartzekoa: euste geruza bat jartzea, behin-behinekoa, azken zigitatzea egiten den arte. Horrek aukera eman beharko luke zaborteziaren inpermeabilizazioa bermatzeko eta orubearen osotasuna mantentzeko, besteak beste.

Orduan nola liteke Zaldibarko zaborteziaren gainean industrialde bat eraikitzea aztertzeko eskatu izana Eusko Jaurlaritzak? Eta Joaquin Beltranen oroimena non geratzen da? Lotsagarria.

A. I. Z.

Zaldibarko zaborteziaren arriskuz beteak oraindik

2020ko otsailaren 6an amildu zen Zaldibarko zaborteziaren eta oraindik begira nola gauden. Aste honetan jakin dugu Eusko Jaurlaritzak Geologia y Geoteknia Larrea SM enpresari eskatutako



LAGUNAK
colchonera textil hogar



+



Luzeza:	90	105	135	150
Prezioa:	830€	905€	1.120€	1.195€

180 cm-ko luzeerako koltxoletan %5 gehituko da prezioa, eta 200cm-koetan, %10

1. STRETCH SEAQUAL EHUNA
2. VISCOTERMIC EHUNA
3. 60° GARBITZEKOA
4. HIRU DIMENTSIKOKO EHUNA
5. ATSEDEN INDEPENDENTEA
6. ARTIKULAZIOA ETA TRANSPIRAZIOA PROFILATZEA
7. ZIRKULAZIOA HOBETZEN DU - 8. ERGONOMIKOA



OPARI
Barko argitasuna

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

240 plaka fotovoltaiko jarri dituzte kiroldegian energia aurrezteko

Bukatu dute Olaizaga kiroldegiko teilatuan plaka fotovoltaikoak jartzeko proiektua. Bi fase izan ditu proiektuak: martxotik maiatzera bitartean 140 plaka jarri zituzten, eta maiatzetik ekainera bitartean beste ehun. Egindako inbertsioa 100.000 eurokoa + BEZa izan da. 240 modulu dira, beraz, guztira (109 Kwp), 50kw-ko bi inbertitzailek kudeatuak. Udaletik jakinarazi dutenez, Olaizaga Kiroldegiko autokontsumorako instalazio fotovoltaikoak urtean 67.682 kWh (% 27) aurreztuko ditu; 10.275 euro inguru urteko.



Horretarako, sarera konektatutako eguzki-instalazio fotovoltaiko baten sistema elektrikoan integratuko da, soberakinak konpentsatuta eta 100 kw-ko potentzia instalatuta.

2024ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa martxan da

Elgoibarko Udaleko Euskara Sailak 2024ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa jarri du martxan, Ongarri Argazki Taldearekin elkarlanean. Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten duten 16 urtetik gorakoek izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera, eta aurtengo gaia hauxe da: "Elgoibarko gizarte, kultura eta kirol arloetako elkarte eta taldeek antolatutako ospakizunak eta jarduerak". Argazkiak 2022ko urritik 2023ko urrira bitartean Elgoibarren egindakoak izan beharko dira. Partaide bakoitzak sei argazki aurkeztu ditzake gehienez, baina pertsona bakoitzari ez

zaizkio hiru sari baino gehiago emango. Argazkiak originalak izan behar dira, inon argitaratu gabeak eta horizontalean ateratakoak. Epaimahaiak 13 argazki sarituko ditu; 12 egutegi handirako eta bat egutegi txikirako, eta argazki bakoitzaren egileak 80 euroko erosketa bonoa jasoko du saritzat, Txankakuaren dendetan gastatzeko. Argazkiak aurkezteko azken eguna urriaren 6a izango da, eta Euskara Sailean (Aita Agirre Kulturgunea, 1. solairua / euskara@elgoibar.eus) entregatu beharko dira. Informazio gehiagorako Euskara Sailera jo daiteke: 943 744 366.

Elgoibarko Institutuko zortzi ikaslek lortu dituzte aurten ohorezko matrikulak



IES Elgoibar BHI ikastetxetik jakinarazi dutenez, Batxilergoko zortzi ikaslek lortu dituzte ohorezko matrikulak 2022-23 ikasturtean. Honako hauek dira matrikuladun ikasleak, argazkian goiko ilaratik eta ezkerretik hasita: Etor Ezenarro Ariznabarreta, Ane Gonzalez Aldalur eta Markel Goenaga Urain. Beheko ilaran, Iñigo Sastre Estarta, Lore Leturiondo Garcia, Lucia Madina Arrillaga, Janire Prieto Arribas eta Naroa Rodriguez Aranburu.

Udalak osatzeko osoko bilkurak, bihar

Hauteskundeak egin eta hogeigarren egunean osatzen dira Udalak helegiterik izan ez den kasuetan, eta beraz, Elgoibarren eta Mendaron, bihar, ekainaren 17an, izendatuko dituzte alkateak, Udala osatzen den egunean bertan aukeratu ohi delako herriko agintari gorena ere.

Biharko udalbatzaren ezohiko bilerak publikoak dira, eta beraz, edonork dauka zuzenean jarraitzeko aukera. 11:00ean hasiko da bilkura Elgoibarren, eta 12:00etan Mendaron, eta bozketa bidez aukeratuko dituzte alkateak. Lehenengo bozketan

gehiengo osoa lortzen duena izendatzen dute alkate, eta gehiengo osoa inork lortzen ez duenetan, hauteskondeetan boto gehien lortu zituen zerrendako lehen hautagaia izendatzen dute alkate. Berdinketa egonez gero, berriz, zozketa bidez aukeratuko lukete alkatea. Hauteskondeetako emaitzei erreparatuz gero, Mendaron, Enetz Ezenarro Arriola izendatuko dute alkate, udal hauteskondeetan gehiengo osoa eskuratu zuelako EHBilduk. Elgoibarren, berriz, EAJk irabazi zituen udal hauteskundeak, eta, Maialen Gurrutxaga Uranga izango da alkate.

Uztailaren 14a arteko epea dago Lila Sarietarako hautagaiak aurkezteko

Elgoibarrenemakumeen etagizonen arteko eskubide eta aukera berdintasuna sustatzen lagundu duten eta horretan nabarmendu diren pertsonak edota erakundeak egindako lana publikoki aitortzeko sortu zuten Lila Saria. Iaz egin zuten estreinakoz, eta aurten ere zabaldu dute dagoeneko hautagaiak aurkezteko epea. Elgoibarko edozein erakunde edo pertsona fisikok aurkeztu ditzakete hautagaiak ondorengo loturan sartuta: labur.eus/lilasaria2023. Uztailaren 14a izango da horretarako azken eguna.

Epaimahaia Lilaren Mahaiko hiru kidek, Berdintasun Saileko teknikariak, Berdintasun Saileko arduradunak eta alkateak osatuko dute, eta saridunak oroigarri bat eta 500 euroko saria jasoko ditu. Saria ekitaldi publikoan emango da, Lila Emakumeen Etxearen urteurrenaren astean (iraileko laugarrenean). Iaz, Sanlok jaso zuen Lila Saria, 30 urte baino gehiagoan emakumeen kirola sustatzen, genero-estereotipoak deseraikitzen, herriko neskentzako erreferente berriak aurkeztzen eta gizarte berdinzaleago baten aldeko pausoak ematen egindako lanagatik.

Hasi dituzte Garagartzan uholdeen eragina minimizatzen obren baitako zundaketa lanak

Urak handi datozenean Kilimon erreka gainezka egiteko arriskua txikitzeko, erreka ondoko petrila altxatu zuen Uraren Euskal Agentziak, eta bestetik, Mendaroko Udalak azterketa bat eskatu zuen, auzoko hoditeria-sistemaren azterketa egiteko. Azterketa horretatik ondorioztatu zuten Trinitate kaleko 1. zenbakiaren parean ekaitz-tanga bat eraikitzea izan zitekeela irtenbideetako bat. Asmoa litzake hara bideratzea hoditeria-sisteman pilatzen diren urak, handik erreka ponpatzeko gero. Obra hori egiteko, baina, bestelako lanak ere egin behar dira aurretik, eta martitzen goizean egin zituzten lehenengo zundaketa lanak.

Hasi dituzte Intxarbakuntzako aldapa berritzeko obrak

Astlehenean hasi zituzten Mendaron Intxarbakuntzako aldapa berritzeko obrak. Obra bukatzean, zirkulazioaren noranzko bakarra utziko dute biribilguneetik goranzko noranzkoan, eta espaloi bat eraikiko dute eskuinaldean. Uren kanalizazioa eta argiztapena ere berrituko dituzte. Egurki eraikuntza enpresari esleitu diote obra eta 228.926,62 euroko aurrekontua du.

Heziketa zikloetako ikasleei errekonozimendua egin diete IMH Sarietan



Laburki Heziketako graduazio ekitaldia egin zuten joan zen astean, eta ikasturte amaierako diplomak banatzeaz gain, IMH Sariak ere banatu zituzten, heziketa zikloetako ikasleei errekonozimendua egiteko. Alor desberdinak saritu dituzte: ikasle ohi aipagarria Miriam Lizarralde Arrillaga izan da; espezializazioko ikasle aipagarria, Aitor Alberdi Aizpuru; goi-mailako ikasle aipagarria, Andoni

Gallastegi Totorikaguena; erdi-mailako ikasle aipagarria, Mikel Ezama Sagarna, eta elgoibartar aipagarriak Ibai Arandia Arenas eta Iker Benito Astigarraga izan dira. IMHko ordezkariekin batera, Elgoibarko Alkatea, AFM Clusterreko pertsonen arloko zuzendaria, Hoffman Group, BIEMH eta Silam enpresa babesleak, eta Blum Novotest eta WORKinn Talent Hub enpresa kolaboratzaileen ordezkariak ere izan ziren ekitaldian.

Zabalik dago Urruzunoko udal baratzeak eskatzeko epea

Herri baratzeak sortuko ditu Elgoibarko Udalak Urruzunon, eta jada izena eman daiteke udal baratzea eskatzeko zerrendan. 30 metro koadroko 30 baratze egokituko dituzte guztira, baina Udalak bi baratze beretzat gordeko ditu, horregatik, esleitu beharreko baratzeak 28 izango dira. Iñiguez Karkizao kaleko berdegune batean aisialdirako gune berri bat eraikitzen ari da Udala, eta hor kokatu dituzte herri baratzeak. Interesdunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: 18 urtetik gorako pertsona fisikoa izatea; oinarri hauek onartu aurreko bost urteetan gutxienez Elgoibarren erroldatuta egotea; Elgoibarko Udalarekin zergen eta zehapenen ordainketa egunean izatea; eta udal-baratzeak erabiltzen dituen beste pertsona baten bizikidetzaren unitatekoa ez izatea.

Baratzea erabiltzeko lizentziak urtebeteko iraupena izango du, eta urtez urte luzatu ahal



izango da, gehienez hiru urtera arte. Lurzatiak zozketa bidez esleitu dituzte. Eskakerak HAZen edo Elgoibarko Udalaren egoitza elektronikoan (www.elgoibar.eus) aurkeztu beharko dira, irailaren 29rako.



*Zutik: Ainara Argoitia, Dorleta Lazarobaster, Irati Mendikute, Eukene Gurrutxaga,
Behean: Lurdes Rodriguez, Ainhoa Urbieta, Nagore Urkiza eta Eider Agirre.*

■ Martxan da berriro In Leike

✍️ Ainara Argoitia

1998an sortu zuten Mendaron In Leike aisialdi eta kultur elkarte, herrian dinamika sozio-kulturala sortzeko. Azkeneko urteetan, hala ere, anekdotikoa edo ia hutsa izan da haren jarduna. Iaz, baina, Dorleta Lazarobasterrek eta Eider Agirrek In Leikeren elkarte izaera baliatzea erabaki zuten euskal dantza taldeari beste bultzada bat emateko. Eta helburu horrekin hasi zenak beste indar bat hartu du orain. Zortzi laguneko talde-eragilea osatu dute, Mendaron kulturaren praktika bizkortzeko, euskararen erabileran eragiteko eta herriko kultur ondarea balioesteko".

Misio bat: "Mendaro herrirako dinamika sozio-kulturala sortzea, euskaratik eta euskaraz. Euskararen erabileran eragiteko eta kulturaren praktika bizkortzeko lan egingo dugu, bai eta Mendaroko kultur ondarea balioesteko eta zaintzeko ere". Eta zehaztapen bat, balio gisa: "Hizkuntzak dira kulturen adierazle garrantzitsuenetakoak, eta

mendaroar guztien hizkuntzekiko errespetutik jardungo gara, euskara kohesio hizkuntza izateko bokazioz". Hala diote In Leike aisialdi eta kultur elkarte berrituaren estatutuek. 1998an sortu zuten Mendaroko lagun talde batek In Leike, baina urte askoan ez du apenas aktibitate izan, EAEko Elkarten Erregistroan indarrean egon bada ere. Aisialdi taldeak bakarrik jarraitu

zuen izen horren pean lanean azkenean, baina hura ere desegin zen duela zortzi bat urte. Orain, baina, elkartu eta dinamika hari heltzea erabaki du berriro beste lagun talde batek. Estatutuetan jaso dute helburu horrekin bat datozen ekintzak eta ekimenak sortzen eta bultzatzen lan egingo dutela, herriko eragileekin aliantzak eta sinergiak ehunduz, bai eta, behar denean, kanpoko beste eragile batzuekin lankidetzan ere.

Eukene Gurrutxaga Juaristik (presidentea), Dorleta Lazarobaster Arakistainek (presidenteordea), Eider Agirre Olazabalek (idazkaria), Lurdes Rodriguez Barrerasek (diruzaina), Irati Mendikute Iriondok (bokala), Nagore Urkiza Pelayok (bokala), Ainhoa Urbieta Iriondok (bokala) eta Ainara Argoitia Aranok (bokala) osatzen dute talde-eragilea, baina nabarmendu dute atea zabalik dutela batu nahi duen guztiarentzat. Mendaron, euskarari eta kulturari astindu bat emateko gogoak elkartu ditu. Iazko santanen harira batu ziren estreinakoz, euskal dantza taldea "formalizatu" eta dantza taldeari beste bultzada bat emateko asmoz. Mendaro, herri dantzaria izan da tradizioz, baina euskal dantzak ez zituen betiko garai onenak bizi. Ez zegoen sasoi bateko dantzari talde handirik, ez zuen dantza taldeak garai bateko sonik, baina bazegoen euskal dantzei balioa emateko ilusio bat taldekideen artean eta bazegoen eta badago dantza-irakasle direnen konplizitate bat ere, bidea saiatzeko. Hala, jaialdi berezia prestatu zuten jaietarako, eta euskal dantzak garai batean Mendaron izan zuen indarra itzultzeko eta falta zuen aterkipe hori emateko, elkarte-egitura hartzea erabaki zuten. Zer eta nola egin aztertzen hasi zirenean jabetu ziren, baina, In Leikek indarrean jarraitzen zuela elkarte-erregistroan eta estatutu haietan erraz kabitzeko modua ikusten zutela. Hala, talde hura sortu zutenekin berba egin, eta egitura hori baliatzea erabaki zuten. Estatutuei orraztu bat eman, eta jendarteratu dute orain elkarte berriua.

In Leikeren izenean antolatu zuten iaz ere santanetako dantza emanaldia -eta antolatuko dute aurten ere-, eta In Leiketik zuzentzen dituzte dantza taldearen diru-kontuak orduz geroztik. Baina egiteko berriak ere zerrendatu dituzte. "Ilusioz gaude eta ideiarik ez dugu falta, baina pausoz pauso joan nahiko genuke,

"Orain, San Joan bezperarako antolatu nahi dugun akelarrearekin ari gara buru-belarri"

indarrak neurtuz, iraupen luzeko proba delako hau. Orain, San Joan bezperarako antolatu nahi dugun akelarrearekin ari gara buru-belarri", zehaztu du Eukene Gurrutxagak: "Hiru bat urtean antolatu zuen Amagoia Zabalak akelarrea Mendaron, herriko hainbat eragileekin lankidetzan -azkenekoz 2019an,-baina Amagoiak ludotekako eta gaztelekuko arduraduna izateari laga zionean, galdu zen urtetik urtera indarra hartzen hasia zen jai hura. Izugarri jai polita zela iruditzen zitzaigun, herri oso bat inplikatzen zuena eta komunitatea indartzeko balio zuena, eta horregatik iruditu zitzaigun bai ala bai heldu behar geniola hari".

Ekainaren 23an, San Joan bezpera egunean, egingo dute akelarrea, Herriko Enparantzan. Funtsean, 2019koaren esentzia mantenduko du. Ekainaren 23an 21:54ean sartuko da eguzkia, eta ordu horretan hasiko dute jai gutxi-gorabehera, behin ilunduta. Herriko hainbat norbanako eta eragilek parte hartuko dute Akelarrean, besteak beste musikariek, irrintzilari batek, dantza modernoko ikasleek, eta euskal dantza taldeko gaztetxo eta nagusiek. 40tik gora lagunek parte hartuko dute akelarrean zuzenean, eta ekimen horren baitan piztuko dute San Joan sua ere, urteroko usadioan.

Akelarreaz gain, beste ekintza bat ere lotua du udarako In Leikek. Izan ere, uztailaren 14tik 16ra bitartean Mendaron antolatzen ari diren garagardo azokaren baitan, Plazan Dantzan ekimena antolatu dute In Leike eta Mendaroko Gazteak dantza taldetik uztailaren 16rako, Inguma taldearekin. Aurreratu dute ez dela oholtzarik izango, plaza-dantzak dantzatzeko dantzaldi irekia izan nahi duelako. Fandangoa, Arin-arina, Courinta, Axuri Beltza, Borobila, Jauziak, Lantzeko Ihauteria, Banakoa, Baltsa... dantzatzeko dituzte eta eskualdeko dantza taldeetako lagun guztiak gonbidatu dituzte



2019ko akelarre bukaeran egindako argazkia.

dantzara. 12:00etarako jarri dute ordua, plazan.

Dantzan egin ostean, frontoian elkarrekin bazkaltzeko gonbidapena ere egin diete eskualdeko lagunei. Garagardo azokaren antolatzaileek bazkaltzen eta afaltzen emango dute frontoian hiru egunetan, eta batzen duten dirua minbiziaren ikerkuntzarako izango dela aurreratu dute. "Eta hara batuta, geuk ere jarriko dugu gure alea", zehaztu du Gurrutxagak. Bazkari hori, gainera, kantu bazkaria izango da. Ondoren, trikiti poteoa egingo dute herriko Trikitixa taldekoekin, eta gauerako, bertso afaria lotu dute Iker Zubeldia eta Julio Soto bertsolariekin. Frontoian izango da, garagardo azokaren baitan.

Herri curriculum

Hasiera baino ez da. Aurreragorako badituzte beste ekintza eta ekimen batzuk pentsatuta, bai

eta proiektu handiago bat ere: herri curriculum lantzeko eta garatzeko bidea hastea, hala nahi duten eragile guztiekin elkarlanean. "Gai hau Arno guraso elkartean ere erabili genuen In Leikera batu garenetako batzuk aurrez. Ikusten genuen transmisioan eten bat egon dela Mendaron eta mendaroar askok eta batez ere gure seme-alabek oso gutxi dakitela bizi diren herriaz. Daukaguna eta garena baloratzeko, lehenengo zer dugun eta zer garen jakitea komeni izaten da, eta horixe egin nahiko genuke: Mendaroko Kultur Ondarea jasotzen hasi, belaunaldi berriei transmititzeko, eta aldi berean, herritartasuna lantzeko". Eta azpimarratu du: "Asmo handiko proiektuak dira horiek, epe luzerakoak, baina bien bitarterako ere topatuko dugu entretenimendua".

Aitortu du kezkatuta daudela oso euskararen erabilerak Mendaron izan duen apaltzearekin eta euskara sustatzeko eginahalera ere batuko direla In Leiketik. Gorka Arrese kulturzaleak Elgoibarko *Euskara ala ez* zikloan esandako berbak gogorazi ditu Gurrutxagak. "Guk ere uste dugu ekosistema bereko organismoak direla kultura eta hizkuntza eta bat ezin dela bestea gabe. Garbi ikusten dugu euskararen erabilera ez dela zabalduko, kulturaren praktika bizkortzen ez badugu, eta aldi berean, kulturgintzak ez duela osasuntsu irauteko aukerarik izango, euskarari behar dituen argia eta indarra eman ezean. Premisa hori da. Ahalegina egingo dugu".

*"Uztailean Mendaron egitekoa duten
garagardo azokaren baitan
Plazan Dantzan ekimena antolatu dute
uztailaren 16rako"*

Historiaurreko klima aldaketari buruz ariko da gaur Mari Jose Iriarte EHUKo irakaslea Mendaron

Joan zen barikuan hasi zuten Mendaron Morkaiko Leizarpe Taldeak eta Euskal Herriko Unibertsitateak Udalaren babesarekin antolatu duten arkeologiari buruzko zikloa. Alvaro Arrizabalaga EHUKo irakasleak *El valle del Deba y Mendaro durante el Paleolítico* izenburuko hitzaldia eman zuen, udalbatza aretoa bete jenderen aurrean.

Kantauri isurialdeko aztarnategi nagusien berri eman zuen Arrizabalagak, azpimarra berezia eginda Deba ibarrekoetan, eta batean eta bestean topatutako aztarna esanguratsuenak azaldu zituen, irudiekin lagunduta. Mendarora etorrira Arrizabalagak esan zuen gutxi ikertutako lekua dela, baina potentzialitate handia duena, kokapenagatik eta inguruak dituen ezaugarriengatik eta berretsi zuen ez dela inongo disparte Mendaron bost-sei aztarnategi egon daitezkeela esatea. Are, iradoki zuen epe motzean zeresana emango duela Mendarok. "Aurreikustekoa da hiru-lau urteko epean emaitza oso onak izatea", zehaztu zuen.

Alvaro Arrizabalagaren ikertzaile taldeak hogeit bat urte daramatza Mendaron lanean eta beste horrenbeste gehiago Deba bailara osoa kontuan hartuta, eta une honetan Paleolitoko lau aztarnategitan ari dira aldi berean lanean Mendaron. Era berean, Morkaiko Leizarpe Taldekoekin batera, interes handiko beste zenbait kokaleku ere identifikatuta dituzte.

Joan zen ostiralekoak jarraipena izango du gaur. Izan ere, gaurko dago antolatuta ziklo honetako bigarren hitzaldia [beste biak irailean izango dira]. Mari Jose Iriarte-Chiapussok *Cambio climático durante la Prehistoria* izenburuko hitzaldia emango du gaur, 19:00etan hasita, udalbatza aretoan. Iriarte-Chiapusso EHUn Ikerbasque fundazioko irakaslea da, zehazki GIZAPRE Historiaurreko Ikerketa Taldekoa. Bi ikerketa-lerro nagusitan ari da lanean egun, eta bi kasuetan lotura estua du Gipuzkoarekin, eta batez ere mendebaldeko haranekin, Deba eta Urola ibarrekin. Batetik, Paleolitoko eta Mesolitoko ehiztari-biltzaileen taldeak aztertzen ditu Euskal Herrian, eta Gipuzkoan eta Bizkaian



egindako hainbat aurkikuntzatan parte hartu izan du. Bestalde, historiaurreko bilakaera klimatikoan aditua da. Aztarnategi arkeologikoetan topatutako polen fosilizatuaren azterketetan oinarrituta lortzen dute informazioa, eta paleoingurumeneko informazio horretan oinarrituta prestatu du gaurko hitzaldia. Irageanean klimak izan zuen bilakaera azalduko du, oraina ulertzen eta etorkizunak ekar diezagukeena ikusten lagunduko digulakoan.

Iraileko agenda

- **Irailak 15, eguena:** *Emakumea historiaurrean.* Naroa Garcia-Ibaibarriaga EHUKo irakaslea.
- **Irailak 22, eguena:** *Deba haraneko historiaurrea makrougaztunen ikuspegitik.* Ondare arkeologiko eta paleontologikoaren garrantzia iragana ulertzeko. Aritzta Villaluenga EHUKo irakaslea.

Iraileko Gararock jaialdiaren atariko antolatu dute Mendaron



Gararock parkean jaialdia antolatu dute Mendaron ekainaren 30erako (Azpilgoetako Santa Kuruzko parkean, 19:00etan). Gararock taldeak antolatu du, Mendaroko Udalaren eta Uztargi tabernaren laguntzarekin, eta iraileko jaialdiaren atariko moduan aurkeztu dute. Hain justu ere, bertan aurkeztuko dute iraileko jaialdia iragartzeko erabiliko duten kartela ere. Aurten, Iñaki Ovejero diseinatzaile grafikoak egin du kartela, Sinuöseren kartelak egin ohi dituen artista berberak.

Ina Iriondo Gararock taldekoak jakinarazi duenez, bi osagai nagusi izango ditu hil bukaerako jaialdi honek. Batetik, Gararocken kartela aurkeztuko dute, eta bestetik, hiru talde gonbidaturen kontzertuak izango dira. Kontzertuen ordena zehaztu gabe dute oraindik, baina han izango dira Iban Urizar, Amorante bere bakarkako proiektuarekin; Bikustik, Jon Gurrutxagak eta Patxi Zabaletak osatutako bikoia, eta Brian Valeta Movement taldekoak. 2020ko ekainaren 3an hil zen Carlos Cebrian *Cebriren*, eta Patxi Zabaleta eta Rafa Furnierren proiektua da Brian Valeta Movement, eta Cebry bizi zela grabatutako doinuekin osatutako diskoa aurkeztuko dute talde hartako Zabaletak eta Furnierrek, lagunez inguratuta. Cebri hil berritan Azpilgoetako Santa Kuruzko parkean bertan antolatu zuten Cebriday jaiari egin bezala, emanaldi berezia prestatu dute, inprobisazioan oinarrituta.

Egur arte tailerrekoen lanak ikusgai jarriko dituzte gaur Kultur Etxean

Egur arte tailerreko ikasle gazte eta helduen artelanekin erakusketa osatu dute Kultur Etxeko erakusketa gelan, eta gaur zabalduko dute. Zeramika, esmaltea, marrazkiak eta margolanak egongo dira ikusgai gaurtik ekainaren 24ra arte, astelehenera zapatura, 18:30etik 20:30etara.

Bertako zuhaitz espezieak ezagutzeko aukera izan dute Mendaron haurrek



Natura eta baratzea tailerra antolatu zuen aurreko astelehenean Arno Guraso Elkarteak. Gure basoetan aurki ditzakegun arbola espezieak ezagutzeko aukera izan zuten haurrek, Xomorro taldeko begiraleen eskutik, eta urazak eta beste landatu zituzten bukaeran haurrek, ontzia etxera eraman eta hazte prozesua jarraitu ahal izateko.

Hirugarren saio bat emango dute gaur Biraka dantza taldekoek Elgoibarren



Bi egunez lepo bete da Herriko Antzokia Biraka taldekoen *Birakaos* dantza emanaldia ikusteko, eta gaur emango dute hirugarren saioa, 20:00etan, Herriko Antzokian bertan. Saio bakoitzean 150 bat dantzari inguruk parte hartu dute, 4 urtekoak gazteenak eta 70 urte bueltakoak zaharrenak.

Udako solstizioa ospatzeko Ekigain festa egingo dute ekainaren 21ean Elgoibarren

Udako solstizioa elkarrekin ospatzeko Sallobente-Ermuaranera deitu dute ekainaren 21erako. Ekigain jaia antolatu du Elgoibarko Izarrak egun horretarako, Inazio Bereziartua musika eskolaren laguntzarekin eta Udalaren babesarekin. 18:30ean jarri dute ordua Maalatik oinez joan nahi dutenentzat, baina oinez joateko aukerarik ez dutenei esan diete 20:00etarako agertzeko Sallobente-Ermuaranera. Han, 19:30ean, dantzaren urratsak ikasteko saioa egingo dute, eta ondoren, 19:45ak aldera, afari-merienda egingo dute, eta txokolatea banatuko dute gero. Sallobenteko elkartekoek ogitartekoak salduko dituzte han bertan, baina aurrez eskaerak egin dituztenei. Eskaerak egiteko: labur.eus/ekigainogitartekoak loturan.

20:45ean, ongi-etorria izango da, eta 21:00ean, euskal kanten bertsioak joko dituzte Elgoibarko zenbait musikari gazteek. Ondoren, Ekigain kanta eta dantza aurkeztuko dituzte.



Uxue Alberdik sortu du letra, eta Iban Urizarrek, Amaia Oñederrak, Mikel Etxanizek, Maialen Arriolak eta Aitor Novak jarri diote ahotsa eta melodia. 22:30ak aldera suaren gainetik salto egiteko aukera zabalduko dute. Etxerako buelta 23:00ak alderako aurreikusi dute. Bueltarako frontala eramateko gomendioa egin dute. Euria bada, Maalako parkean ospatuko dute jaia.

Arrakasta handia izan du Anjel Bazterretxea omentzeko proiektuak



Anjel Bazterretxea, herrigintzan hauspo eta akui lu dokumentalaren estreinaldiak izan zuen harrera ona ikusita eta herritarren eskariak aintzat hartuta, beste bi aldiz eman dute asteen dokumentala Mendaron: astelehenean, jubilatuen lokalean, eta eguaztenean, San Agustinen (astelehenekoa da argazkia). Erakusketa bera ere hiru egunez luzatu zuten. 54 urtez Mendaroko abade izan zen Bazterretxea eta haren omenez eta herritar talde baten ekimenez ondu du proiektua Elgoibarko Izarrak, Mendaroko Udalaren babesarekin.

Ume eta guraso asko elkartu ditu Arnok antolatutako zirko tailerrak



Haurrentzako zirko tailerra antolatu zuen astelehenerako Mendaroko Arno Guraso Elkarteak, Udalaren laguntzarekin. Bi orduko tailerra izan zen, eta iaz Trinitaten egin zutena, aurtun, frontoian egin zuten. Bertan, LH1etik LH6ra arteko hurrek eta haien gurasoek zirkuko diziplina ezberdinak ezagutzeko aukera izan zuten, bai eta malabare eta abarrekin elkarrekin ondo pasatzeko tartea ere. Zirkua eta hezkuntza agroekologikoa sustatzen dituen Xomorro Taldeko begiraleak izan zituzten gidari lanetan hurrek.

Haritz Euskal Dantzari Taldean ibilitakoek jai handia izango dute bihar Elgoibarren



Haritz Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Elgoibarren. Haritz Euskal Dantzari Taldean ibilitako guztiak elkartzeko eguna dute biharkoa eta egun ahaztezina izateko osagai guztiak biltzen ditu. Hasteko, 12:30ean, bazkaltzera joatekoak diren dantzari guztiak Aita Agirre kulturgunean elkartuko dira eta zapiak banatuko dituzte. 13:00etarako, berriz, ekitaldi

berezi bat prestatu dute, Haritz dantza taldearen ibilbidea gogoratzeko eta urteurrena biribiltzeko. 15:00etan izango da bazkaria, Maalako parkean, Euskal Parrillaren eskutik. Eta 18:00etatik aurrera musikak eta dantzek hartuko dute kalea. Skapaie elektrotxaranga etorriko da horretarako. 22:30ean, emango dio azkena egunari Bide Batez erromeria taldeak, Maalako parkean.

Euriagatik elizako arkupeetan egin zuten ikasturte bukaerako jaialdia Elgoibarko dantzari gaztetxoek



Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako euskal dantza taldekoek elizako arkupeetan egin behar izan zuten ikasturte amaierako emanaldia joan zen barikuan, bete-betean ekaitza leheritu zelako Elgoibarren. Gipuzkoako eta Bizkaiko dantza tradizionalak dantzatu zituzten, besteak beste, eta jendetza batu zen arkupera, haurrak dantzan ikustera.

Gidabaimenaren azterketa euskaraz gainditzen dutenentzako laguntzak banatuko ditu Udalak, zozketa bidez

Gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditzen duten 16 eta 29 urte arteko gazteak sarituko ditu Elgoibarko Udalak, *Animatu eta atera gidabaimena euskaraz* kanpainaren barruan. Azterketa teorikoa euskaraz gainditzen dutenen artean zozketa egingo du Udalak eta irabazleak gidabaimenaren ikastaroaren edota azterketa teorikoaren pareko dirulaguntza jasoko du, beti ere, gehienez 500 euroko zenbatekoa.

Zozketan sartzeko ondorengo baldintzak bete beharko direla zehaztu dute Udaletik: Elgoibarren erroldatuta egotea, 16 eta 29 urte bitartean izatea, eta azterketa teorikoa 2023ko urtarrilaren 1a eta urriaren 30a bitartean gainditzea. Eskaerak aurkezteko azken eguna 2023ko urriaren 30a izango da, eta eskaerak HAZen (Santa Ana 2) edo www.elgoibar.eus webgunean egin beharko dira.

EUSKARATIK MUNDURA

✍ Ainhoa Andonegi / 📷 Asier Orbea

Euskaratik mundura zubiak eraikitzeko eta elkarrekin gozatzeko jaia ospatu zuten domekan Elgoibarren: Auzoko Jaia. 'Auzoko' programak euskaratik urrun bizi direnak euskarara gerturatu eta hizkuntzaren bidez euren herrietan auzotzeko aukera eman nahi du. Musika, dantza eta gastronomia uztartu zituzten, eta euria egin zuten arren, giro onean joan zen festa. Hainbat herritatik etorri zen jendea, eta 200 bat lagun bildu ziren guztira. Argazki gehiago eta bideoak ikusteko: barren.eus







“Eibarren jotzea eta gainera Su Ta Garren aurretik gauza handia da”

JON ZABALA

Ehun Kilo taldeko abeslaria

✍ Ainhoa Andonegi

90eko hamarkadaren erdialdean, euskaraz abesturiko heavy metala indar handia hartzen ari zen garaian, sortu zuten Ehun Kilo taldea. 1991n batu ziren Jon Zabala (ahotsa), Jon Iturrino (gitarra), Jabi Bergara (gitarra), Kristian Etxabe (baxua) eta Kamilo Fernandez (bateria), eta urtebetera kaleratu zuten estreinako maketa. Kontzertuak ematen hasi ziren bata bestearen atzetik, eta 1994an atera zuten 'Euli artean'

izeneko diskoa. Handik urtebetera iritsi zen bigarren diskoa 'Esaiek' izenburupean, eta 1997an desegin zuten taldea, Elgoibarko Gaztetxean eman zuten azken kontzertuarekin.

2017an izan zen Ehun Kiloren nolabaiteko itzulera. Taldea desegin eta hamar urtera Hatortxu Rock jaialdian jotzeko deia jaso zuten, eta haren harira, hiruzpalau kontzertu eman zituen taldeak, tartean Elgoibarko sanbartolomeetan. Iazko maiatzean batu ziren azkenekoz, eta ordutik elkarrekin jo gabe egon dira. Orain dela hilabete eta erdi inguru jaso zuten Eibarko jaietan Su Ta Gar taldearen aurretik jotzeko deia, eta ordutik buru-belarri aritu dira lanean, gaur gaueko prestatzeko. 21:30ean izango da kontzertua, Untzaga plazan.

Berriz ere igoko zarete oholtzara gaur gauean, eta ez edozein eszenatokitan, gainera. Eibarko Untzaga plazan izango da, eta Su Ta Gar taldearen aurretik. Nola suertatu zaizue kontzertu hau emateko aukera?

2017an Hatortxu Rock jaialdirako gonbitea egin zigutenean hiru bat kontzertu eman genituen. Elgoibarko txosna gunetik ere deitu ziguten gero sanbartolomeetan Maalan jotzeko eta haiei ere baietz erantzun genien, eta Ermutik ere deitu ziguten, baina pandemiaren ondorioz, iaz arte ezin izan genuen Ermuan jo. Konpromiso batzuk hartu genituen eta haiei erantzun genien, baina 2017tik atzetik geneukan Eibarko Kultura teknikaria. Ezaguna dugu, eta Eibarren jo behar genuela esaten zigun. Aurtengo San Joan jaietan Su Ta Gar iragarri zutenean berriz deitu zidan, eta nire hasierako erantzuna ezezkoa izan zen. Eskerrak eman nizkion gurekin akordatu zelako, baina lagata geneukala aspaldi eta ez genuela joko esan nion. Azkenean, Aitorrek [Su Ta Gar taldeko Aitor Gorosabel] Elgoibarren hitzaldi musikatu eman zuenean egosi zen berriro kontu hau. Elkarrizketa horren biharamunean deitu zidan berriz ere Eibarko teknikariak, eta gero, Aitorrek ere esan zigun animatzeko. Azkenean, baietz esan genuen.

Aipatu duzu sotoko elkarrizketa musikatu, eta bistan geratu zen Aitorrek eta biok oso harreman ona duzuela. Haien aurretik jotzeak zer esanahi dauka zuretzat?

Aspalditik ezagutzen dugu elkar Aitorrek eta biok. Ehun Kiloren aurretik Napalm taldea sortu genuen, eta gitarjole bila ari ginela agertu zen Aitor proba egitera. Bera mutiko gazte bat zen orduan, 17 bat urte izango zituen, eta gu berarentzat gizonak ginen ordurako. Elkarrekin aritu ginen Napalm taldean, eta gero, Ehun Kiloren diskoan ere kolaboratu zuen; baita nik ere Su Ta Garren hasierako diskoetan. Hasierako bi diskoetako garrasi batzuk nireak dira, bai. Eta lagunak gara ordutik; harreman ona daukagu. Beraz, ezin izan genion azken gonbidapen honi ezetz eman, baina gaur gauekoa gure azken kontzertua izango da, seguruenik. Su Ta Garrek bi aldiz finikitatuko nau: Napalm taldearen azken kontzertua ere Su Ta Garren aurretik eman genuen, eta Ehun Kiloren azkena ere halaxe izango da.

Azkena dela diozu, baina ikusi izan zaitugu oholtzan azkenaldian, EME Egunean esaterako, eta nabari da oraindik gozaten duzula.

Oholtzan bai, baina oholtzara igo aurretik egin beharrekoa da gogorrena. Taldekideon lana eta entseguak uztartzea ez da erraza. Adinean ere aurrera goaz, eta erritmoa hartzea kostatu egiten zaigu. 60 urte inguruko kuadrilla gara, eta bonbo bikoitzari eman egin behar zaio! Iazko maiatzean Ermuan eman genuen kontzertuaz gerotik ez gara orain arte elkartu. Orain dela hilabete inguru elkartu gara berriz Eibarko prestatzeko. Gaur gauekoa izango da seguruenik Ehun Kiloren azken kontzertua. Etorriko balitz eskaintza interesgarriren bat agian ezingo genioke ezetz esan, baina oraindik nik uste du baietz, azkena izango dela.

Nola zaudete azken kontzertu honen atarian?

Orain arte lasai nengoen, baina hasi naiz urduritzen, egia esan. Denbora gutxi eduki dugu kontzertua prestatzeko, eta entseguak ere dozena erdi bat edo egin ditugu, gehiago ez. Bakoitzak bere lana daukagu eta ez da erraza elkartzea. Dena dela, gogotsu eta ilusioz gaude, baina aldi berean, urduri ere bai. Eibarren jotzea eta gainera Su Ta Garren aurretik gauza handia da, eta errespetua ematen du. Gure ibilbidean zehar gainera ez dugu sekula Eibarren jo. Auzoren bateko jaietan noizbait izan ginen, baina Untzagan gaur joko dugu lehenengo aldiz. Su Ta Gar izanda talde nagusia, seguru plaza topera egongo dela. Joan zen barikuan Maalan egon nintzen musika bandak eman zuen Queen kontzertuan, eta han ere jende asko etorri zitzaidan esaten etorriko zirela gu ikustera. Presioa sentitzen dut, ez pentsa, baina, aldi berean badakigu gauza handia dela. Ea asmatzen dugun, eta maila ona emateko gai garen.

Zer emango duzue gaurko kontzertuan?

Ehun Kiloren bi diskoetako kantuak joko ditugu; ez dugu ezer berririk sortu. Betiko kantak izango dira. Guk ez dugu ezer sortzen eta orain dela 30 urteko abestiak jotzea ere ez da plana. Sortzaile bati gauza berriak sortu, diskoak atera eta jendeari erakustea gustatzen zaio. Egia da jendea oraindik gogoratzen dela gutaz, gerturatzen zaigu jendea eta guk askotan ez dugu jakiten nola erreakzionatu. Guk aspaldiko kontu bat bezala ikusten dugu Ehun Kilo eta jokoz kanpo harrapatzen gaituzte batzuetan.



GAU MAGIKOA

✍️ Ainhoa Andonegi / 📷 Asier Orbea

'Queen gaua' antolatu zuen Udal Musika Bandak joan zen barikurako, eta Maalako parkeak txiki geratu zen. Bandak bakarrik jo zituen lehen bi abestiak, eta horien ostean igo zen eszenatoki gainera Jon Gurrutxaga, txalo artean. Queen taldearen abestiak Gurrutxagaren ahotsean entzuteko irrikaz zeuden Maalan batutako herritarrak, eta gogotik gozatu zuten. Bata bestearen atzetik etorri ziren banda britaniarraren abestirik ezagunenak, eta Maalan batutakoek puskatean gogoan izango dute han bizitakoa. Patxi Zabaleta (gitarra), Andoni Mujika (baxua) eta Silvia Hernandez (pianoa) izan ziren gainerako musikari gonbidatuak, eta bandako kideekin batera gauari ukitu magikoa eman

zioten. "Oso pozik gaude. Musikariak oholtzan oso gustura aritu ziren, eta ikusleek ere izugarri gozatu zuten. Jaso ditugun komentario guztiak positiboak izan dira", adierazi du Gorka Mujika bandako zuzendariak. Urtean behin egiten du Udal Musika Bandak kontzertu bereziren bat, eta urtero saiatzen dira herritarrei zerbait berezia eskaintzen. Aurtengoa gainditzen ez dute lan erraza izango: "Maila oso goian jarri dugu, eta urtero zerbait berria asmatzea ez da erraza, baina datorren urterako ere asmatuko dugu zerbait". Freddie Mercuryk berak abestu zuen bezala, ez dadila etenik egon eta ikuskizunak jarrai dezala. Argazki gehiago eta bideoa: barren.eus



Sanlok bazkari baten bueltan agurtu du denboraldia



Sanloko jokalaria, entrenatzaile, zuzendaritzako kide eta kirol taldearen bueltako beste hainbat lagunek -475 gutzira- Sanlo Festan parte hartu zuten aurreko zapatuan. Sigmako aparkaleku estalian bazkaldu zuten eta urtero moduan, giro ezin hobean pasatu zuten. Bazkalostean Gipuzkoako Kopak irabazi dituzten taldeei eta talde bakoitzeko urteko jokalaria aipagarrienei oroigarriak banatu zizkieten. Sari banaketaren ostean, musikarekin eta dantzarekin izan zuen segida jaiak. Hona hemen Sanloko 2022-2023ko jokalaria aipagarrien zerrenda: Irati

Urbiola (Gaurve Asesores), Oier Arriola (Alcorta Forging Group), Angel Moreno (Pizzeria Salento), Malen Zabala (Cimde), Iaritz Pedroche (Deca), Asier Antxustegi (Jon Ander), Nora Sasiain (Malape), Idoia Aristorena (Deuko Izarra), Susane Cano (Salento Gelati), Oinatz Gurrutxaga (Urkunde), Leire Eizagirre (Astigarraga GYS Sport), Elene Garrido (Neurri), Ander Arambarri (Zubacor), Mara Castrillejo (Tecnifuelle), Stefia Kilembe (Pneumax), Hegoa Villanueva (Bacalaos Alkorta), Maddi Irizar (Dario Bus), Itxaso Garaizabal (Eskola). Argazkiak: Manex Sanchez.

Julen Urruzola, Munduko txapelketa jokatzetik gertu



Ekainaren 20tik uztailaren 2ra bitartean Alemaniak eta Greziak elkarrekin antolatuko duten junior mailako Munduko Eskubaloi Txapelketa jokatu du Espainiako eskubaloi selekzioak -Hispanos Junior-, eta Rodrigo Reñones hautatzaileak mundiala jokatzeko emango duen azken deialdian izateko aukera handiak ditu Bidasoa Irun taldeko jokalaria den Julen Urruzola elgoibartarrak. 2002/2003. urteetan jaiotako jokalaria belaunaldi honek Europako Txapelketa irabazi zuen iaz, eta mundiala irabazi nahi dute orain. Lehen fasean, D Maltzoan arituko dira, eta Japon, Angola eta Feroe uharteetako selekzioak izango dituzte aurkari. Magdeburgon jokatu dituzte partidak. Alemaniara joan aurretik, baina, lagunarteko bi partida jokatu ditu Espainiak Argentinaren aurka, Bejarren (Salamanca, Espainia). Partida horien ostean emango du Reñonesek mundiala jokatu duten jokalarien behin betiko zerrenda.

Eneko Ortega Gipuzkoako txapeldun izan da erlojupekoan

Aizarnazabalen jokatu zituzten martitzenean txirrindularien Gipuzkoako Erlojupeko Txapelketak, eta junior mailakoan Eneko Ortega Larrañagak jantzi zuen irabazlearen txapela. Kategoria horretan hogeitxirrindulari lehiatu ziren, eta 14,5 kilometroko ibilbidea osatu zuten erlojupekoan: Aizarnazabal-Muniosoro-Bedua-Zumaia (saihesbideko biribilgunea)-Muniosoro-Aizarnazabal. Unax Errasti (Aloña) sailkatu zen bigarren postuan eta Adur Tapia (VIV) hirugarrengoa. Ortegaren taldekide Aritz Esnaola mendarorarak 9. postua eskuratu zuen. Aizarnazabalgo proban. Eneko Ortegak Villatuertan jokatu duen Nafarroa Klasikoa



lasterketan hartuko du parte domekan, ekainaren 18an, Euskal Selektzioarekin.

Aritz Esnaola mendarorra txapeldunorde izan da Gipuzkoako Txirrindulari Txapelketan



Memorial M. Oiartzabal lasterketa jokatu zuten domekan Anoetan, Gipuzkoako Txirrindulari Txapelketa, eta Besa-Laboral Kutxako Aritz Esnaola mendarorarak bigarren egin zuen, Iruki Donostialdea taldeko Aimar Alarcia Quintanoren atzetik. 102,5 kilometroko lasterketa izan zen, Anoetan hasi eta Anoetan amaitu zena, eta irabazlearengandik zortzi segundora helmugaratu zen Esnaola, 2:21:01eko denbora eginda. Podiuma Viveros San Anton taldeko Eneko Arangurennek osatu zuen. Esnaolarekin batera Eneko Ortega ere lehiatu zen juniorren Gipuzkoako Txirrindulari Txapelketan eta zazpigarren egin zuen sailkapen nagusian (2:21:53).

Lariz txapeldunorde Euskadiko txapelketan

Amurrioko El Refor izeneko zirkuituan jokatu zituzten domekan Euskadiko mendiko bizikletetako XCO txapelketak, eta Master 40 kategorian txapeldunorde izan zen Iñigo Lariz elgoibartarra. Azaldu duenez, lasterketa jokatu aurretik egindako euriek baldintzatu zuten lasterketa, azken itzulietarako guztiz labainkor gelditu baitzen zorua.



Elgoibarko futbolari gaztetxoak onenekin lehiatu AC Cup txapelketan



Alebin eta infantil mailetako Estatuko 338 taldek eta 5.000 futbolarik baino gehiagok hartu dute parte Athletic Clubek estreinakoz antolatutako AC Cup txapelketan, eta horien artean izan da Elgoibarko talde bat. Elgoibarko taldeak, -hogei mutikoz osatua-, 2009an jaiotakoan kategorian hartu zuen parte eta maila oso onean aritu ziren. Txapelketaren lehen zatian bost taldez osatutako hamalau multzotan lehiatu ziren taldeak, 25 minutuko partidak jokatu. Elgoibarko taldeak jokatu lau partidetatik hiru irabazi eta bakarra galdu zuen, Vila-Realen aurkakoa, "Estatuko jokalaria onenekin osatutako selekzioa" Elgoibartik joandako gurasoen berbetan, eta beraiek irabazi zuten txapelketa, finalean Athletic Club Madridi 1-0 irabazita. Elgoibartarrak gol baten

aldeagatik gelditu ziren lehen fasean aurrera egitekin kanpo. Multzoetako lehiatu bigarren postuan sailkatu ziren hamalau taldeek bigarren fasean lehiatu ziren domekan, Lezaman. Hiru partida irabazi ostean, finalerako sailkatu ziren elgoibartarrak. Portugalete izan zuten aurkari eta banako berdinketarekin amaitu zen arauzko denbora. Penaltietan erabaki zen irabazlea, eta bizkaitarrak gailendu ziren. "Primerako txapelketa egin dute eta asteburu paregabea pasatu dugu bai jokalaria, entrenatzaile eta gurasok", esan dute, eta jokalaria eta guraso guztien izenean eskerrak eman dizkiete babesleei, G&M jantzi dendari eta Kaia tabernari. "Eta nola ez, eskerririk asko Iker Martinez eta Mikel Hidalgo entrenatzaileei, zuek gabe hau ez litzatekeelako posible izango".

Joseba Etxeberria izango da Eibar taldeko entrenatzailea

S.D. Eibar taldeak jakitera eman duenez, Joseba Etxeberria (Elgoibar, 1977) izango da klub armagineko entrenatzailea hurrengo denboraldian. Denboraldi baterako kontratua sinatu du. Etxeberriak Burgoseko Mirandes taldea entrenatu du azken bi sasoietan, bigarren mailan. Denboraldi honetan sailkapeneko 16. postuan amaitu du Mirandesek jaitzieratik zortzi puntura.



Ander Condek eta Aratz Luisak irabazi dute Euskal Herriko Pala Txapelketa Irekia



Euskal Herriko Pala Txapelketa Irekiko finalak jokatu zituzten Oiartzungo Madalensoro pilotalekuan, emakumeen txapelketako zein gizonen hiru kategorietako finalak hain justu ere, eta Bigarren Mailakoan palista elgoibartar batek jantzi zuen txapela. Ander Conde elgoibartarrak eta Aratz Luisa anoetarrak osatutako bikoteak bi tantogatik irabazi zuen Bigarren Mailako finala.

Berho eta Merindano nafarrak izan zituzten aurkari finalean eta nafarrak 21-10 aurreratu ziren arren, markagailua irauli zuten Conde eta Luisak eta 23-25 gailendu ziren. Lagunak taldeko pilotari Kepa Arrizabalaga eta Gorka Lizarralde elgoibartarrek ere irabazi zuten txapelketa hau 2018an, eta iaz Lehen Mailako finalera ere ailegatu ziren.

Plazako pala txapelketak azken txanpan dira

Hogei bikote ari dira parte hartzen Lagunak Pilota Eskolak antolatu dituen gizonetzkoen eta emakumezkoen pala txapelketetan, eta une erabakigarria heldu dira. Domeka honetan jokatu dituzte final-laurdenetako kanporaketak

(11:00etatik aurrera) eta hurrengo martitzenean finalerdiak (ekainak 20). Finala, berriaz, ekainaren 23an, barikua, jokatu dute. Kalegoen plazan jokatzeko dituzte partidak, eta euria bada, Ikastolako frontoian.

Igor Txurrukak lau t'erdiko finalerdietako partida jokatu du bihar, Ikastolako frontoian

Gipuzkoako lau t'erdiko pilota txapelketako finalerdiak jokatzeko sailkatu da Lagunak Pilota Eskolako Igor Txurruka pilotari elgoibartarra. Txurrukak Orioko Ospele taldeko Aranburu izango du aurkari finalerdietako kanporaketan. Bihar, hilak 17, jokatu dute partida, Ikastolako frontoian, 11:00etan hasita. Gipuzkoako Federazioaren lau t'erdiko pilota txapelketaren bigarren finalerdia Donostiako Atano III. pilotalekuan jokatu dute Hiegunek eta Usabiagak.



LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko garbiketa lanak edo lokaletako garbiketa lanak egiteko ere prest nengoke. Esperientzia daukat. Orduka edo etxeko langile moduan jarduteko prest.
632 881 068

Pintore, peoi edo bestelako lanetarako prest nago. Esperientzia daukat.
631 509 262 (Jonathan)

Adinekoak zaintzeko prest nago. Erabateko malgutasuna daukat. Orduka edo asteburuetan ere.
642 578 943

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka, asteburuetan, gauzez... Erizain laguntzaile titulua daukat.
631 125 127

Uztailean umeak zaintzeko prest nago, goizez. Neska gazte euskalduna naiz.
634 429 508 (Sara)

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. Etxeko langile moduan, orduka zein asteburuetan lan egiteko prest nago.
642 578 943

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. Etxeko langile moduan, orduka zein asteburuetan lan egiteko prest nago.
642 577 823

Adinekoak zaintzeko eta etxeak garbitzen lan egiteko prest nago.
643 505 827

Lan egiteko prestutasun handia daukat. Esperientzia daukat finantza arloan. **603 124 131**

Eskaintza

2023/2024 kurtsorako, akademia batean lan egiteko, ingeleseko irakasle baten bila gabiltza. Interesatuak bidali curriculuma: elgoibarkoakademia@gmail.com

Pertsona bat behar da garbiketa lanetarako eta sukaldatzeko. Astean bi egunetan, orduka.
667 083 913


Mekanizazio lantegi baterako langile bila gabiltza. Ez da behar ezagutza berezirik, baina ezinbestekoa da pertsona dinamikoa eta efizientea izatea. Denboraldi luzerako lanpostua. Bidali CVa comercial@ajubita.com helbidera edo deitu **943 740 929** zenbakira.


Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p>administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enkainatutako Administrazioaren Kontseilua</p> <p>ROSA M^a PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure komunitateko kanalizazioan matxura bat dago, eta hori konpontzea komunitateari dagokion jakin nahi nuke.</p> <p>Husteko kanalizazioak hondakin solidoak eta likidoak garraiatzeko hodiak dira, eta elementu komunak dira, legean araututa dagoen bezala. Beraz, komunitateari dagokio hori konpontzea.</p> <p>Hala ere, higiezin batean dauden kanalizazioak elementu pribatibo bihurtzen dira, eta, beraz, kaltetutako jabearen kontura egin behar dira konpoketak, pisu edo lokal bakoitzean sartzen baitira.</p> <p>Jatorrizko kokalekua aldatu nahi izanez gero, komunitatearen aho bateko baimena behar dute, aldaketa hori jabeakideen interes orokorraren arabera egiten denean izan ezik. Kasu horretan, nahikoa izango da ordezkari-tza-kuoten hiru bostenen gehiengoaren adostasuna.</p> <p>GOMENDIOA: Kontuan hartu behar da legeak esaten duela ezin dela eraikinaren zatiren bat jabe baten erabilerrako eta gozamenarako erabilezin bilakatzen duen berrikuntzarik egin, haren baimenik ez badago behintzat.</p> <p>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	--

Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  688 655 658 bidalita.



Zorionak, **Mikel!**
Igandean 5 urte!
Ondo pasatu
eguna! Etxekoan
partez!



Zorionak, **Ayan,**
astelehenean
4 urte egingo
dituzulako.
Etxekoan partez,
muxu handi bat.

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Jon Aranoa
Guillermo Torres



Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astleheneetik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatik: 11:00 - 13:00

leopoindegi zerbitzua daukagu.
Datu ordua hartzeko.



MEKANOSA
Errosario, 27-Elgoibar
943 740 284

- IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- MULTIKOPISTAK
- FOTOKOPIAGAILUAK
- ERLOJU INDUSTRIALAK
- MARRAZKETA MATERIALA
- INFORMATIKA
- FAXA



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162

IKASBAI AKADEMIA **MATRIKULA DOAN**



MATRIKULAZIO ALDIA ZABALIK
2023/2024 IKASTURTE

ESKOLA PARTIKULARRAK

-  Ikasgai guztiak
-  LH/DBH
-  Talde txikiak

INGELES AKADEMIA


-  Eskola laguntza
-  Eskola pertsonalizatuak
-  Cambridge azterketak
-  Haurrak eta helduak

667 261 248
BASARTE 13, BEHEA, Elgoibar

EXPRESS ESKAINTZAK!

GRUNDING
GKPN
46820 W

599 €



- Ez frost
- Duo-cooling
- Edukiera: 316 litro
- Altuera 186 cm
- Bitamina bereziko gunea: frutak eta barazkiak

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

16 BARIKUA

17:00 'Jolasa kalera barixakuetan'. Lekuederren.

19:00 Hitzaldia: 'Cambio climático durante la prehistoria'. Mari Jose Iriarte-Chiapusso EHuko irakasleak emango du. Mendaroko Udalbatza aretoan.

20:00 Birakaos, Biraka dantza taldekoen jaialdia. Herriko Antzokian.

17 ZAPATUA

09:00 Debabarreneko Orientazio Raida. Morkaikok antolatuta. Kalegoen plazan.

11:00 Udala osatzeko bilkura. Elgoibarko udalbatza aretoan.

12:00 Udala osatzeko bilkura. Mendaroko udalbatza aretoan.

Haritz Eguna

12:30 Dantzariei ongi-etorria, Aita Agirre Kulturgunean.

13:00 Ekitalda. Aita Agirre Kulturgunean.

15:00 Bazkaria. Maalako parkean.

18:00 Skapaie elektrotzaranga.

22:30 Bide Batez taldearekin erromeria, Maalan.

21 EGUAZTENA**Ekigain jaia**

18:30 Maalan batuko dira, Sallobentera oinez joateko.

19:30 Dantzaren urratsak ikasteko saioa.

19:45 Afari merienda.

Ondoren, txokolatea banatuko dute.

20:45 Ongi-etorria.

21:00 Bertsioak. Ekigain abestiaren aurkezpena.

22:30 Saltoak.

23:00 Etxerako bidea.

23 BARIKUA

17:00 Akerbeltz janzteko tailerra, Mendaroko ludotekan.

18:00 Mozorro kalejira, Mendaron.

19:00 Elgoibar BHI Institutuko diplomen banaketa. Herriko Antzokian.

22:00 San Joan bezperako akelarrea, Mendaron.

Osasun gida

RPS233/13

943 366 377San Bartolome, 22
20870 Elgoibar**NATUR HOUSE****Ainara Iriando Ansola**GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

RPS 203/16

Txarbio Etxebarria, 22
Eibar**677 551 850****fisio&mas**Fisioterapia aurreratua eta
Kirol BerregokitzeaTrenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 698
www.fisio-mas.com

RPS 177/12

RPS 271/12

Ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behe
Elgoibar

943 531 953
669 565 745

RPS 183/12

Uzuri
optika audio

Elgoibar
943 740 359

Deba
943 192 192

leku edero
hertz klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar

943 530 053

federópticos

ikus

RPS 65/07

San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734



Jaso nahiko al zenituzke
ELGOIBARko
eta **MENDAR**o
berriak zure e-postan?

Harpidetza nola
egin behar duzun jakiteko,
sartu barren.eus-en eta
egin klik 'Nor Garen' atalean.
Bertan topatuko dituzu
azalpen guztiak.



2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

EKAINA

16 BARIKUA	■ Fernandez
17 ZAPATUA	Yudego
18 DOMEKA	Yudego
19 ASTELEHENA	■ Oruesagasti
20 MARTITZENA	Barrenetxea
21 EGUAZTENA	■ Ibañez
22 EGUENA	Garitaonandia
23 BARIKUA	Arriola

2023 urte guztian, gaeuz: 22:00-09:00

Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)
943 203 052

■ Fernandez:

Herriko Enparantza,4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:

Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:

Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384


Eta, Debabarrenean zer?

San Joan jaiak, Eibarren. Sanjuanak hasi dituzte Eibarren, eta besteak beste, bi kontzertu handi izango dira asteburuan Untzaga plazan. Gaur, ekainak 16, Ehun Kilo eta Su Ta Gar taldeek joko dute, 21:30etik aurrera. Bihar, bestalde, Fangoria taldeak emango du kontzertua, 23:00etan hasita.



Miren Iriondo Olaizola

2023ko ekainaren 12an hil zen, 89 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



VIII. URTEURRENA

Garbiñe Iriondo Aristondo

2015ko ekainaren 13an hil zen.

**Izan zarena, erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da zugandik jasotako dena.**

Etxekoak





Aste honetako erretratu zaharra Txomin Mujikak ekarri du BARRENEKO erredakziora. Gaur egun bezala, garai hartan ere joaten ziren umeak udalekuetara, eta argazki hau Ribadesellan aterata dago, udalekuetan. Gipuzkoako Aurrezki kutxa Probintzialak antolatzen zituen udalekuak, eta herri bakoitzetik zortzi lagun joaten ziren, hilabete osorako, abuztuaren 1etik 31ra arte. Bitxikeri bat ere kontatu digu Txominek, eta esan du iristen ziren egunean ume guztiak pisatu egiten zituztela, eta etxeratu behar zuten egunean ere bai. Udalekuetan pisu gehien irabazten zuen umeak saria jasotzen zuen. Gogora ditzagun zeintzuk diren mutiko gazte horiek:

Goiko ilaran, zutik: Txomin Mujika, Jose Angel Fernandez (†), Julian Azkue eta Manu Pagola. Behean: Alfonso Guilló, Patxi Ajubita (†), Patxi Osoro *Kanuto* (†) eta Javier Egaña.



Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta:

barren@elgoibarkoizarra.eus

Barreneko bulegora ekarri:

Alfa Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk.





ANE KORTABERRIA BILBAO (Elgoibar)

Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza (LEINN) graduko

4. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

“Denetariko proiektuak garatzeaz gain, Alemania, Costa Rica eta Hego Koreara bidaiatzeko aukera izan dut”.

► **Zergatik aukeratu zenuen LEINN gradua?**

Beti gustatu izan zait gai desberdinak ikatea eta banekien LEINN graduan sektore anitzetan esperimentatzeko aukera zegoela. Besteak beste, erabiltzen den metodologia praktikoak eta nire interesei lotutako proiektuak garatzeko aukera ego-teak erakartzen ninduen. Nire ahizpak gradu bera ikasi zuen eta, horregatik, nahiko ondo ezagutzen nuen.

► **Nola baloratzen duzu LEINNen bizitako esperientzia?**

Oso esperientzia gorabeheratsua izan dela esango nuke, baina aldi berean, izugarri ikasi dudana sentazioa dut. Hala ere, esan beharra dut behin baino gehiagotan zalantza egin dudala gradua egiten jarraitzea, pertsonalki asko eragin didalako. Bizipen positibo asko ditut gogoan, jende zoragarria ezagutu dut eta pertsona bezala asko hazi naiz.

► **Zer da gehien gustatzen zaizuna Mondragon Unibertsitatetik?**

Ikasitakoa praktikan jartzeko ematen duten aukera zabalak eta ematen duten gertutasuna. Ikasle gisa, eskertzen da zenbaki hutsa bagina bezala ez tratatzea.

► **Lehen egunetik enpresa bat sortu duzue LEINN graduan, nola egiten da hori?**

Hori da, graduan sartzen garen momentuan legalki irabazi Asmorik Gabeko Ikasle Elkarte bat sortzen dugu taldean. Horretarako lege- eta finantza-aholkularien laguntza jasotzen dugu eta, lau urtetan zehar, enpresa hori oinarritzat hartuz, talde eta proiektuen garapen eta lidergoa ikasten dugu.

► **Zer proiektu mota garatu izan dituzue zuen enpresarekin/ekipoarekin LEINNen barne?**

Denetariko proiektuak garatu ditugu, baina inteligentzia emozionala, hezkuntza, despopulazioa eta tokiko turismoari buruzko proiektuetan aritu naiz ni, sorkuntzarako sormen espazioak dinamizatzen, berrikuntza lantzen, merkatu-ikerketak egiten, tailerrak ematen...

► **Zer iruditzen zaizkizu atzerriko esperientziak? Zein esperientzia bizitzeko aukera izan duzu?**

Zalantzarik gabe, esango nuke graduko esperientzia dela bereizgarriena eta oso eskertuta nago, nire kasuan, Alemania, Costa Rica eta Hego Koreara bidaiatzeko aukera izan dudalako. Leku horietan proiektuak garatzen eta taldea gestionatzen jarraitzen dugu, bertako erakundeekin kolaboratuz, kultura lokala gertutik ezagutuz eta beste hainbat esperientzia biziz. Gainera, urtean zehar egiten dugun lana oso garrantzitsua izaten da, bidaiako oinarritzko gastuak egindakoarekin finantzatzen ditugulako eta horrela, bertako egonaldia gehiago baloratzen dugulako.

► **Etorkizunari begira, zeintzuk dira zure asmoak? Nola ikusten zara?**

Kultura eta sormen industriekin, ekonomia sozialarekin, berrikuntza eta nazioarteko harremanekin lotutako gaiak gustatu izan zaizkit beti, beraz, arlo hauetan arituko naiz seguruenik. Lehenik Gradu Amaierako Proiektua egitea falta zait, eta horri forma ematen ari naiz orain. Hala ere, pozik nago, enprekin hitz egitean eta nire esperientzia partekatzean harrera oso ona izan dudalako eta aukera desberdinekin egin dudalako topo.

GREEN MI O EN GIDA



LEIHOAK

 **LODOSO LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223
lodosofj@gmail.com
943 743 490

ITURGINTZA

 **PAGOAGA S.A.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
 Pedro Migel Urruzuno, 8
943 740 512
 Faxa: 943 743 565
 tienda@pagoagasa.com
 www.pagoagasa.com

BILTEGIA
 San Antoln, 13 - ELGOIBAR
 taller@pagoagasa.com
943 740 279

AROZTEGIA

 **BIENA S.L.**
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
 tel/fax. 943 743 116
 www.biena.eus
 info@biena.eus



PINTURA

 **BIOK dekorazioa**

Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
 biok@biokdekorazioa.com

ITURGINTZA

 **SANTANA**
 Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behe
 Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
 santanaiturgingintza@gmail.com

AROZTEGIA

 **iraolagoitia**

aroztegia - altzariak - elxe-aldaketak
 Kurutz-gain industrialdea, 9
 20850 Mendaro
943 756 112
636 497 485
 www.iraolagoitia.com

ELEKTRIZITATEA

 **egoluz**
 ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: 630 957 345
677 512 462
 Pedro Migel Urruzuno, 14 behe
 20870 ELGOIBAR

Bulegoa: **943 200 697**
 ego.luz@hotmail.com

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

PLAGANATURA



Cuidado de Salud Ambiental
618 198 760
 ivan@plaganatura.eus
 www.plaganatura.eus

AROZTEGIA

 **IMAR AROZTEGIA**

Olaso industrialdea, 17 behe
943 531 471
609 054 978
 carpinteriaimar@hotmail.com
 @carpinteria_imar

Gidan agertzearen onurak!

 **943 743 704**
 **688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea. 3. 3. ezk
 20870 ELGOIBAR

23,10€ hilean
12 aldiz urtean
4,885 ale astero

22 Eren truke, hileru, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleihu ikusiena.

4,885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.